



Otsoa eta artzaina nola bateratu?

“Otsoak ez du otsokirik jaten” dio atsotitzak, bai ordea ardiaren haragia. Eta hori da azkenaldian artzainak kezkatzen dituen, otsoak bertaratu ahala gero eta artalde gehiago erasotzen baititu. Baina otsoa gure paisaiatik kanporatzea al da konponbidea? Ala artzaintza eta otsoa bateragarriak izan daitezke? Animalia honekin zerikusia duten hainbat elkarte eta erakundetara jo dugu eta erantzun desberdinak bildu ditugu.

ENEKO SALABERRIA

OTSOA. Hitz soila entzutearekin, hainbat ipuinetan zein ahoz aho gureganatu ditugun istorio beldurgarrietan agertzen den pizti odol-zalearen irudia datorkigu burura. Baina otsoak ez zuen Txanogorritxoren amona irentsi edota txerrixoen etxolak suntsitu, ez horixe. Leporaturiko ospearean zioa mendeetan zehar gizakiarekin izandako lehian aurki daiteke.

Egun ere, abeltzainak ez daude gustura animalia honekin. Otsoak, haragijale oportunista

izanda, animalia motel eta “tontotuak” hobesten ditu. Askoz ere denbora eta energia gutxiago behar izaten du ardiak hiltzeko, orein, orkatz edota basurdeak akabatze bako. Gauzak horrela, artzainen ikuspuntua aztertzea ezinbestekoa da. Euskal Herriko abeltzaintza mota nagusia otsorik gabeko garaietan garatu zen. Hau da, ardiak larreratzeko orduan, otsoarengatik kezkatu beharrik ez zegoenean. Hala, urteko hilabeterik beroene-

Euskal Herrian zabaldu den haragijale oportunistak

Ipar hemisferioko hainbat lurraldetan bizi den haragijale oportunistak da otsoa. Egun, Asia, Ipar Amerika eta Europako habitatetan bizitzera moldatu da, beti ere gizakia dabilen inguruak saihesten saiatuz. Denak *Canis lupus* espeziekoak badira ere, itxura ezberdineko subespezieak bereiztu daitezke. Horrela, Bergman-en erregelak dioten moduan, iparreak bizi diren otsoak hegoaldean bizi direnak baino handi eta pisutsuagoak dira. Latitude altuetako banakoek 60 kilogramo inguruko pisua lortzen dute eta Italian edo Iberiar Penintsulan bizi direnek 30-40 kg-ko pisua izan ohi dute. Kolorea ere oso aldakorra da, zuri, beltz, gris eta arreak aurki baitaitezke. Bestetik, 5-10 banakoz osaturiko taldeetan bizi direnez, askoz ere pisutsu eta indartsuagoak diren harrapakinak ehizatzeke gai dira. Taldean bizitzeak onura ugari eskaintzen ditu, baina tirabira askoren sorlekua ere bada. Otso-talde bakoitzean bikote menderatzailea soilik ugaltzen da eta taldearen buruzagitza lortzearen makina bat liskar izaten dira. Liskar horien ondorioz banako batzuk taldetik kanporatzen dituzte, bazter berrien bila abiatzera behartuz.

Azken urteotan Kataluniako Pirinioetan jatorri italiarra duten otsoak aurkitu badira ere, Iberiar Penintsulan bizi den otso nagusia *Canis lupus signatus* motakoa da. Otso iberiarren populazioak gorabehera handiak jasan ditu, tamaina zein banaketari dagokionez, eta horien atzetik gizakiaren esku luzea aurki daiteke gehienetan.



XIX. mendearen amaieran, populazioaren beherakada nabarmena izan zen, oso jazarpen bortitza pairatu baitzuen. XX. mende hasieran otso iberiarren egoera oso larria zen. Portugal, Gaztela eta Leon, Asturias, Galizia, Kantabria eta Andaluziako bazter isolatuenetan soilik biziraun zuen. Baina 70eko hamarkadan gertatutako industri boomaren ondorioz, herri eta baserriak husten joan ziren, otsoarenganako jazarpena nabarmen leunduz. Bestalde, garai hartan, hainbat pozoien erabilera debekatzeaz gain, naturaren dibulgazioa Félix Rodríguez de la Fuente-ren eskutik indartzen hasi zen. Faktore horiek, harrapakinaren populazioaren emendatzearekin batera, otsoaren hedapena eta aspaldian galdutako lurraldeen berreskurapena bultzatu zuten. Poliki-poliki eta era naturalean emandako prozesua izan da.

Euskal Herria ez da egoera horretatik at geratu. Edozein mapa hartu eta Euskal Herriaren kokapen geografikoa arakatz gero, oso leku estrategikoa dela konturatu gara, kantabriar mendikatea eta Pirinioak lotzen baititu. Beraz, funtsezko korridore ekologikotzat jo dezakegu, baita otsoarentzako ere. Euskal Herrian harrapariaren hedapena azken hamabost urteotan nabarmendu da. Egun, mendealdeko lurraldeetan baino ez badago ere, ekialderantz hedatzeko joera argia ikusten da. Baina horren lurralde populatua izaki, gizakiarekin topo egiten du sarri, eta horra arazoaren iturria.

tan, ardiak lasai-lasai ibiltzen dira mendian eta otsoarentzako harrapakin errazak dira. Orain arte, otsoek eragindako kalteak ez dira oso handiak izan, baina bai artzainak kezkatzeko modukoak. Pasa den urteko udazkenean zehar, egoeraren berri emateaz gain, konponbideren bat aldarrikatzeko helburuarekin manifestazio ugari egin zituzten abeltzainek. Abeltzain askoren ordezkartza duten hainbat

sindikatu eta elkarteak —horien artean UAGA eta EHNE sindikatuek— *Otsoaren hedapena, artzainen suntsipena* leloa hartu dute oinarritzat. Otsoa artzainen jarduerarekin bateraezina dela azpimarratzearekin batera, bataren edo bestearen aldeko apustua egin beharra dagoela diote. Artzainen kezka nagusia ez da otsoek eragiten dituzten kalte ekonomikoak pairatzea, kalte horiek saihestearren egin beharreko aha-

gure!
arteak
euskaraz





RAUL BOGAJO

legina baizik. Beste modu batera esanda, ez daude mendian gau eta egun artaldea zaintzeko prest. Azken finean, dirua ez ezik bizi-kalitatea galtzeko arriskua ikusten dute.

Erakunde publikoen jarrera aztertuta, irizpide ezberdinak erabiltzen dituztela ondorioztatu daiteke. Eusko Jaurlaritzak, esaterako, otsoa ez du bertokotzat hartzen. Azken urteotan egindako ikerketek ordea, Euskal Herrian finkaturiko otso-talderen bat badagoela argi utzi dute. Bestetik, Foru Aldundiei dagokienez, arazoari aurre egiteko hainbat konponbide proposatzen dituzte. Bizkaiko Foru Aldundiak otsoen aurrean ardiak babestea hobesten duen jarrera argia erakutsi du eta Arabako Foru Aldundiak artzaintzak eta otsoak bateragarriak izan beharko luketela adierazi du. Baina esanak eta izanak gehienetan ez datoz bat. Arabako Foru Aldundiak harturiko neurri batzuk oso egokiak badi-ra ere, hala nola artzakurren erabileraren sustapena –ardiak otsoen erasotik babesten dituen zakurra– edota kalteen ordainketak, zalantzarriak diren neurriak ere badi-ra, basurdeak bezalako hainbat animalia-aren uxaldiak antolatzen direnean, otsoak tirokatzeko aukera izatea, besteak beste. Dena den, Euskal Herria bezalako lurralde txikian bakoitzak sokari mutur ezberdinetik tiratzeak ez dirudi oso zentzuzkoa eta irizpide guztiak kontuan hartuko dituen hitzarmen baten beharra ikusten da.

Bi artzainek otsoak hildako ardi bat Arabako Foru Aldundiaren ate aurrera daramate, UAGA sindikatuak deitutako manifestazio batean.

Bizkaiko Foru Aldundiak otsoen aurrean ardiak babestea hobesten du. Arabakoak, neurri egokiez gain, zalantzarriak ere baditu: hainbat animalia-aren uxaldietan otsoak tirokatzeko aukera, besteak beste

dira kontuan. Otsoaren garrantzi ekologikoa oso handia da, kate trofikoaren goimailan baitago. Beraz, beste animalia batzuen populazioak kontrolatzen ditu (orkatzak, oreinak, basurdeak...), banako gaixo eta ahulduak akabatuz. Bestetik, otsoak benetan eragindako kalte ekonomikoaren balioespina egin beharko litzateke. Hau da, hildako abereak, zauriturikoak, umea botatakoak, estresak jotakoak eta abarren zerrenda osatu beharko litzateke, beti ere zakur basatuek eragindako kalteak baztertuz. Datu guztiak bilduta, gune arazotsuen kokapen zehatza ezagutuko genuke. Azkenik, gizartearen ikuspegia aztertu

beharko litzateke, otsoarenganako aurreiritzi eta gezurrak dibulgazio-lan egokiaren bidez zuzenduz. Hori guztia kontuan izanda, leku jakin bateko otso-populazioa kanporatzeko beharra dagoela ondorioztatzen duten arrazoiak honakoak dira: abereetan eragindako kalteak handiak izatea, gizarte-gatazka gogorra egotea, behar adinako harrapakinik ez egotea eta balio naturalik gabeko ingurua izatea. Arrazoi horiek guztiak bete ezean, otsoaren kanporatzea edo hilketa ez litzateke batere gomendagarria izango. Euskal Herrian, otsoa kokatzen deneko tokietan behinik behin,

harrapakin ugari eta balio natural handiko guneak daude. Ondorioz, irtenbide egokiagoren bat bilatu beharko da.

Kanpoko ereduak

Beste leku batzuetara so eginda, lagungarriak gerta daitezkeen adibideak aurkituko ditugu. Ipar Ameriketako hainbat lurraldetan antzeko arazoa pairatu ostean, otsoak erakarritako turismoari errentagarritasuna ateratzen saiatzen ari dira. Yellowstone Parke

Nazionalean egindako ikerketa baten arabera, adibidez, urteko 70 milioi dolarreko irabaziak lortzen dituzte otsoaren kontura. Horren urruti joan gabe, aintzat hartu daitezkeen adibideak ere badaude, hala nola Asturiasekoa. Bertan, otso-populazioen kontserbazio eta jarraipena, gizartearen sentsibilizazioa eta landa eremuaren sustapena bateratzen saiatzen dira. Agian, gurean ere, hori izan daiteke abeltzaintza eta otsoa bateragarri egiteko bidea. ■

Otsoaren garrantzi ekologikoa

Otsoaren kudeaketa egokia zehazteko, oinarri biologiko, ekonomiko eta sozialak izan behar